

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

**334/2018 Foru Agindua, uztailaren 11koa, zeinaren bidez baimentzen baita aldi baterako izendatzea halaberharrez Cristina Nuñez Saseta andrea Gasteizko Udaleko idazkari nagusiaren lanposturako, 2018ko ekainaren 30etik abuztuaren 17ra (biak barne)**

Gasteizko Udalak atal honi jakinarazi dio halaberharrezko izendapen bat behar duela Idoia Martínez Peñalva andrea osoko bilkurako idazkari nagusia aldi batez ordezteko.

Hori dela eta, proposatzen du Cristina Núñez Sáseta izendatzea halaberharrez, aldi horretarako; korporazio horretako funtzionarioa da, eta lege aholkularitzako legelari lanpostuan ari da.

128/2018 Errege Dekretuaren 52.4 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz (128/2018 Errege Dekretua, martxoaren 16koa, zeinaren bidez arautzen baita toki administrazioeko funtzionario estatu osorako gaikuntzadunen araubide juridikoa).

Kontuan hartuz 27/2013 Legearen 25. artikuluan ezarritakoa (27/2013 Legea, abenduaren 27koa, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunerakoa, zeinaren bidez aldatzen baita 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki araubidearen oinarri buruzkoa, artikulua berri bat sartuz hartan, 92 bis, zeinaren bidez determinatzen baita toki korporazioetan langileak aldi baterako halaberharrez izendatzeko eskumen eremua).

128/2018 Errege Dekretu horren hirugarren xedapen gehigarrian arautua betez, eta 52/1992 Foru Arauaren 40. artikuluan jasotzen diren eskudantzien ondorioz (52/1992 Foru Araua, Arabako Foru aldundiaren antolamendu, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzkoa), eta nire eskumeneoak diren ahalak baliatuz,

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aldi baterako eta halaberharrez izendatzea Cristina Núñez Sáseta andrea Gasteizko Udaleko osoko bilkuraren idazkari nagusiaren lanpostuari dagozkion eginkizunak bete ditzan, lanpostuaren titularra kanpoan den artean, alegia, 2018ko uztailaren 30etik abuztuaren 17ra (biak barne).

Bigarrena. Izendapena aurreko apartatuan aipatutako eperako bakarrik izango da.

Hirugarrena. Foru Agindu hau interesdunei, Gasteizko Udalari eta Eusko Jaurlaritzaren Toki Administrazioarekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari jakinaraztea, eta ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko uztailaren 11

*Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta*

*Lurralde Oreekaren Saileko foru diputatua*

**MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO**

*Lurralde Oreekako zuzendaria*

**IÑAKI GUILLERNA SAENZ**